

Sin./Fdo.: ELISA ZUGAZAGA DIESTRE 2024-12-05
Ord./Sust.: MARTA BARCO MONDRAGON
INKLUSIOA SUSTATZEKO ZERBITZUKO BURUA
JEFE/A SERVICIO PARA LA INCLUSIÓN

Sin./Fdo.: MANUEL OSCAR SECO REVILLA 2024-12-05
GIZARTE INKLUSIOA SUSTATZEKO ZUZENDARITZA NAGUSIA-REN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE INCLUSIÓN SOCIAL

Sin./Fdo.: MARÍA TERESA LAESPADA MARTINEZ 2024-12-05
ENPLEGUA, GIZARTE KOHESIOA ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE EMPLEO, COHESIÓN SOCIAL E IGUALDAD

AHALDUN NAGUSIAREN FORU DEKRETUA; zeinen bidez Peñascal S. Coop. erakundeari zuzeneko dirulaguntza ematen baitzaio Beste Bizitza – activación residencial proiektua garatzeko.

DECRETO FORAL DE LA DIPUTADA GENERAL, por el que se concede a la entidad Peñascal S Coop subvención directa para el desarrollo del proyecto Beste Bizitza-activación residencial.

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren eginkizuna da berdintasuna, elkartasuna eta enplegua Bizkaiko gizartean bideratzeko politika publikoak bultzatzea, herritarrei zerbitzua emanez, hain zuzen, beren egoera pertsonalagatik edo sozialagatik edo familiaren egoeragatik bizitza duina eta osoa izateko zailtasunak dituztenei, betiere, arreta guinea gizartean baztertuta edo horretarako arriskuan daudenengan jarrita, besteak beste.

El Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad tiene como misión la generación e impulso de políticas públicas favorecedoras de la igualdad, la solidaridad, la cohesión social y el empleo en la sociedad de Bizkaia, mediante la prestación de servicios a aquéllos ciudadanos y ciudadanas que, a causa de su situación personal, social o familiar, tengan dificultades para desarrollar una vida digna y plena, centrando el foco de su atención, entre otras, en las personas en riesgo o situación de exclusión social.

Zehazki, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren erregelamendu organikoa arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 6ko 60/2024 Foru Dekretuan aurreikusitakoarekin bat etorritz, Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak, oro har, honako eginkizun hauek ditu esleituta: baztertuta dauden edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonen arreta ematea, eta pobrezia eta gizarte-bazterkeriaren aurka

En concreto, de conformidad con lo previsto en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 60/2024, de 6 de junio, por el que se aprueba el Reglamento Orgánico del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, la Dirección General de Inclusión Social, tiene atribuidas con carácter general las funciones de atención a personas en situación de exclusión o riesgo de exclusión, estableciendo las medidas precisas que ayuden





borrokatzeko politikak kudeatzea, eta haien bizi-kalitatea hobetzen eta gizarteratzen laguntzen duten neurri zehatzak.

Aipatutakoaren ildotik, **ASOCIACIÓN PEÑASCAL S. COOP.** (IFZ F48537518), erakundeak (aurrerantzean, «*erakunde onuraduna*» edo «*erakunde eskatzailea*» ere) zuzeneko dirulaguntza eskatu du **BESTE BIZITZA - ACTIVACIÓN RESIDENCIAL** proiektua gauzatzeko.

Gazte Estrategiaren esparruan artatutako gazteei ostatua izateko irtenbideak eskaini behar zaizkiela detektatu du erakunde eskatzaileak egiten ari den esku-hartzean.

Gazte Estrategiak sustatzen duen arreta-ereduaren oinarritzko kontzeptuen artean, honako hauek daude:

- Bizimodu independentearen eredua, zeinak pertsonaren etxea oinarri duten zerbitzuen edo bizitzeko irtenbide sakabanatuen eta txikien alde egitea baitakar, kalteberatasun-egoeran dauden pertsonak komunitatean bizitzeko aukera izan dezaten, berme guztiekin.
- Ikuspegi komunitario bat, eta, horren barruan, pertsonen arteko harreman primarioak, asoziatiboak edo elkarlanekoak indartzea eta, ondorioz, etxeetan, bizilagunen artean, auzoetan, herrietan eta hirietan bizimodu autonomoari eta interdependenteari eusteko gaitasuna eta beste pertsona batzuei bizimodu horretan laguntza emateko gaitasuna indartzea.

Arreta-eredu komunitarioaren oinarrietako bat da ostatu-baliabideak eskuragarri izatea, pertsonak emantzipaziorako edo helduarora igarotzeko prozesu bat hasteko aukera izan dezaten baliabide horietatik.

Kontuan hartuta zenbat pertsona sartzen ari diren gaur egun Gazte Estrategian eta zer

a mejorar su calidad de vida y favorezcan su inclusión social.

En relación con lo anterior, la entidad **ASOCIACIÓN PEÑASCAL S. COOP.** (NIF: F48537518), en lo sucesivo, asimismo, “*entidad beneficiaria*” o “*entidad solicitante*” presenta solicitud de subvención directa para la ejecución del proyecto **BESTE BIZITZA - ACTIVACIÓN RESIDENCIAL**.

La entidad solicitante, desde la intervención que viene realizando ha detectado la necesidad de ofrecer soluciones alojativas a las personas jóvenes atendidas en el marco de la Estrategia Joven.

Entre los conceptos básicos sobre los que se asienta el modelo de atención que promueve la Estrategia Joven se encuentran los siguientes:

- El modelo de vida independiente que conlleva la apuesta por servicios de base domiciliaria o soluciones residenciales dispersas y de pequeño tamaño, a fin de permitir que las personas en situación de vulnerabilidad puedan vivir, con garantías, en la comunidad.
- Un enfoque comunitario, fortaleciendo las relaciones primarias, asociativas o colaborativas entre las personas y, con ellas, su capacidad para sostenerse y sostener a otras en vidas autónomas e interdependientes en los domicilios, vecindarios, barrios, pueblos y ciudades.

Uno de los pilares sobre los que se asienta el modelo de atención comunitario es la disponibilidad de recursos alojativos, desde los que las personas puedan iniciar un proceso de emancipación o tránsito a la vida adulta.

Dado el actual volumen de incorporaciones a la Estrategia Joven y las dificultades con las que





zailtasun dituzten gazteek ostatua izateko erantzun egokia lortzeko, batetik, higiezin merkatua gainezka dagoelako, eta, bestetik, eskuragarri dauden etxebizitzaren prezioak garestiak direlako eta ez datozelako bat Gazte Estrategian parte hartzen duten gazteen aukera ekonomikoekin, beharrezkotzat jotzen da ostatua izateko irtenbide azkarrak eskaintzea, eta, horretarako, higiezin bitartekaritzaren prestazioa profesionalizatzea, bai etxebizitza eskuratzeari dagokionez, bai bertan mantentzeari dagokionez.

Horretarako, aldi baterako neurri hauek proposatzen dira:

1.- Aterpeetan ostatu hartzeko aukera 16 gazteri, aldi baterako eta txandaka.

2.- Aurreko zenbakian ostatua izateko deskribatutako baliabideetatik alde egitea arintzeko, higiezin arloko figura tekniko bat sartzea proposatzen da. Higiezin merkatua ezagututa, ostatuak bilatzen lagunduko dute, eta behar besteko trebakuntza emango dute pertsonak autonomia lor dezaten alokairuaren kudeaketan (ordainketak, fidantzak, kontratuak, eskubideak eta betebeharrak...).

Era berean, figura horrek bitartekaritza-lana egingo du pertsona edo erakunde errentariekin, eta kanpoko ostatu-baliabideak edo erakunde edo administrazio publikoenak kudeatuko dituzten bizitegi-sareak sortuko ditu.

3.- Gazteek etxebizitzan jarraituko dutela bermatzeko, bizitza autonomorako prestakuntzaren ikuspegitik, hezitzaile bat sartzea proposatzen da, gazteei etxeko gaietan laguntzeko, hala nola etxea garbitu eta zaintzeko, etxebizitza mantentzearekin lotutako erantzukizunak betetzeko, bizilagunekiko harremanak lantzeko, elkarbizitzan sor daitezkeen gatazketan bitartekari izateko...

se están encontrando las personas jóvenes para obtener una adecuada respuesta alojativa debido, por un lado, a la saturación del mercado inmobiliario y, por otro, a los elevados precios de las viviendas disponibles que no se adecúan a las posibilidades económicas de las personas jóvenes participantes en la Estrategia Joven, se considera necesario poder ofrecer soluciones alojativas rápidas, mediante la profesionalización de la prestación de la intermediación inmobiliaria, tanto para el acceso a la vivienda como para el mantenimiento en la misma.

Para ello, se proponen las siguientes medidas, de carácter temporal:

1.- Soluciones alojativas en formato albergue, de carácter temporal y rotatorio, para 16 personas jóvenes.

2.- Con objeto de agilizar las salidas de las soluciones alojativas descritas en el apartado anterior, se propone la incorporación de una figura técnica inmobiliaria que, con conocimiento del mercado inmobiliario, faciliten la búsqueda de alojamientos, con la capacitación suficiente para lograr la autonomía de las personas en la gestión del alquiler (pagos, fianzas, contratos, derechos y deberes...).

Asimismo, esta figura realizará una labor de intermediación con las personas o entidades arrendatarias, creando redes habitacionales que gestione recursos alojativos externos o de entidades o de administraciones públicas.

3.- Con objeto de garantizar el mantenimiento de las personas jóvenes en la vivienda, desde la perspectiva de preparación para la vida autónoma, se propone la incorporación de una figura educativa que acompañe a las personas jóvenes en cuestiones domésticas, tales como limpieza y cuidado del hogar, responsabilidades respecto al mantenimiento del piso, relaciones con el vecindario, mediar en los posibles conflictos en la convivencia...





Jarduketaren aurrekontuak 2024ko urriaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra bitarteko aldian egin beharreko jarduketak hartzen ditu barne, eta **258.313,29 eurokoa** da.

Erakunde onuraduna irabazi-asmorik gabeko erakundea da, gizartearen zerbitzurako orientazio nabarmena duena, eta, besteak beste, egoera pertsonal, akademiko edo sozial desberdinengatik baztertua dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonen arreta ematea du helburu.

Kontuan izan behar da Bizkaiko Lurralde Historikoko Dirulaguntzen araubide orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.2 artikulua, c) atalean, honako hau ezartzen duela: «zuzenean eman ahal izango dira (...) interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoi egiaztatuengatik, edo behar bezala justifikaturiko beste arrazoi batzuegatik, deialdi publikoa egiteko eragozpenak daudeneko dirulaguntzak».

Zalantzarik gabe, ekimen honek interes publikoa eta soziala du, Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiari esleitutako helburuak eta eginkizunak betetzen laguntzen baitu, batez ere desegokitzapen sozialeko jokabideak dituzten, familia-erreferente heldurik ez duten edo gizarte-babesik eza eragiten duten beste inguruabar batzuk dituzten gazteekin esku hartzeari dagokionez.

Beraz, proiektuaren interes publikoak eta sozialak, erakunde eskatzaileak garatutako jardueraren espezifikotasunak eta hartzaileen beharrei berehala eta arin erantzuteko beharrak deialdi publiko bidez izapidetzea eragozten dute.

Aurrekoa bat dator honako araudi honetan adierazten denarekin:

- Bizkaiko Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko maiatzaren

El presupuesto de la actuación comprende actuaciones a relizar durante el período comprendido entre el 1 de octubre de 2024 y el 31 de diciembre de 2025, y asciende a **258.313,29 euros**.

La entidad beneficiaria es una entidad sin ánimo de lucro con una marcada orientación al servicio de la sociedad que tiene, entre otros, el objetivo de atender a personas que están en situación o en riesgo de exclusión por diversas circunstancias personales, académicas o sociales.

Debe tenerse en cuenta que el artículo 20.2 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen general de Subvenciones del Territorio Histórico de Bizkaia, señala en su apartado c) que “podrán concederse de forma directa (...) aquellas otras subvenciones en que se acrediten razones de interés público, social, económico y humanitario u otras debidamente justificadas que dificulten su convocatoria pública”.

Resulta indudable el interés público y social de esta iniciativa, en la medida en que coadyuva al cumplimiento de los objetivos y funciones atribuidas a la Dirección General de Inclusión Social, en particular en lo que respecta a la intervención con las personas jóvenes que presentan conductas de desadaptación social o que carecen de referentes familiares adultos o en quienes concurren otras circunstancias de desprotección social.

Por lo tanto, el interés público y social del proyecto, la especificidad de la actividad desarrollada por la entidad solicitante y la necesidad de dar respuesta inmediata y ágil a las necesidades de las personas destinatarias imposibilitan la tramitación por convocatoria pública.

Lo anterior, de conformidad con lo previsto en la normativa siguiente:

- Artículo 20.2, c) de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, de





31ko 5/2005 Foru Arauko ("5/2005 Foru Araua") 20.2.c) artikulua.

- Dirulaguntzen Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuko ("34/2010 Foru Dekretua") 52. artikulua.

Subvenciones del Territorio Histórico de Bizkaia ("Norma Foral 5/2005").

- Artículo 52 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de la Norma Foral de Subvenciones ("Decreto Foral 34/2010").

Zuzenean emango den dirulaguntza horrek maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren gainerako artikulatua bete behar du (foru-arau horrek arautzen du Foru Aldundiak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra), aplikagarri zaion guztian, eta batez ere II. titulua, emandako dirulaguntzak itzularazteko araubidea arautzen duena, eta IV. titulua ("Dirulaguntzei buruzko arau-hauste eta zehapen administratiboak"). Halaber, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta aplikatu beharreko gainerako administrazio-arauak bete behar ditu.

Era berean, ebazpen hau egiteko, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan xedatutakoa.

Dirulaguntzaren zenbatekoa kontuan izanda, Bizkaiko Ahaldu Nagusia da laguntza hori emateko eskuduna, horrela xedatzen baitute 34/2010 Foru Dekretuak, 12.2 artikuluan, eta Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretuak, ("169/2014 Foru Dekretua"), bigarren xedapen gehigarrian.

Horrenbestez, sinatzen dutenek dokumentu hau kontuan hartzeko eskatzen dizute, gero Ahaldu Nagusiari bidal diezaiozun, bidezkoa bada.

Esta subvención de concesión directa está sometida al resto del articulado de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Diputación Foral, en lo que le resulte de aplicación, y especialmente al Título II que regula el régimen de reintegro de las subvenciones concedidas, al Título IV, Infracciones y Sanciones administrativas en materia de subvenciones, así como a lo dispuesto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común y al resto de normas de carácter administrativo aplicables.

Asimismo, en la elaboración de la presente resolución se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, que establece los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia.

Habida cuenta de la cuantía de la subvención, es competente para su concesión la Excm. Diputada General de Bizkaia, conforme a lo dispuesto en el artículo 12.2 del Decreto Foral 34/2010, así como en la Disposición Adicional Segunda del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 169/2014, de 16 de diciembre, de aprobación del Reglamento General Presupuestario ("Decreto Foral 169/2014").

En su virtud, quienes suscriben someten a la consideración de V.I., para su elevación si procede a la Excm. Diputada General, la siguiente





FORU-DEKRETU PROPOSAMENA

Lehenengoa.- PEÑASCAL S. COOP. erakundeari (IFZ: F48537518) zuzeneko dirulaguntza ematea; dirulaguntza horren zenbatekoa BERREHUN ETA BERROGEITA HAMAZORTZI MILA HIRUREHUN ETA HAMAHIRU EURO ETA HOGEITA BEDERATZI ZENTIMOKO (258.313,29) da eta Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren 0903 organikoan jasotako partida honen kargura ematen da: 2024/0078 Proiektua, 231110 Programaren (Gizarte Inklusioa) 45100 azpikontzeptua.

Bigarrena.- Gazte Estrategiaren esparruan artatutako gazteak izan daitezke diruz lagundutako jarduketan onuradun.

Hirugarrena.- Erakunde onuradunak eskatzen diren betekizun guztiak betetzen ditu, 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan eta 34/2010 Foru Dekretuaren 13. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoak hain zuzen. Eta ez dago Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan jasotako debeku-egoeretako batean ere ez.

Laugarrena.- Diruz lagundutako proiektua ebazpen honetan, 5/2005 Foru Arauan, 34/2010 Foru Dekretuan eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 21eko 39/2015 Legean ezarritako baldintzen arabera garatuko da.

Aurrekoaren ondorioetarako, diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera behar bezala justifikatuta egonda, beharrezkoak direnak, ezarritako epean egiten direnak eta zalantzarik gabe proiektuaren edo jardueraren izaerari eta garapen normalari erantzuten diotenak.

Besteak beste, hauek inondik inora ez dira diruz lagundu daitezkeen gastuak:

PROPUESTA DE DECRETO FORAL

Primero.- Conceder a la entidad PEÑASCAL S. COOP. (NIF: F48537518) una subvención directa por importe de DOSCIENTOS CINCUENTA Y OCHO MIL TRESCIENTOS TRECE CON VEINTINUEVE (258.313,29) EUROS, con cargo al Proyecto 2024/0078, Subconcepto 45100 del Programa 231110 (Inclusión Social), recogida en el orgánico 0903 del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad.

Segundo.- Podrán ser beneficiarias de las actuaciones subvencionadas personas jóvenes atendidas en el marco de la Estrategia Joven.

Tercero.- La entidad beneficiaria reúne los requisitos exigidos en el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, así como en los artículos 13 y siguientes del Decreto Foral 34/2010. Y que no está afectada por ninguna de las prohibiciones del artículo 42 de la Norma Foral 4/2018 de 20 de junio para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Cuarto.- El proyecto subvencionado se desarrollará bajo las condiciones establecidas en la presente resolución, en la Norma Foral 5/2005, en el Decreto Foral 34/2010 y en la Ley 39/2015, de 21 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común.

A efectos de lo anterior, se considerarán gastos subvencionables aquellos que, siendo correctamente justificados de conformidad con la normativa en vigor, son necesarios, se realizan en el plazo establecido y responden de manera indubitada a la naturaleza y al normal desarrollo del proyecto o actividad.

Entre otros, en ningún caso se considerarán gastos subvencionables:





- Banku-kontuetako interes zordunak.
- Interesak, gainordainak eta administrazio-zehapenak nahiz zehapen penalak.
- Prozedura judizialen gastuak.
- Dirulaguntza jaso behar duen jarduerari zalantzarik gabe lotu ezin zaizkion gastuak edota xedatutako epean egiten ez direnak.
- Zeharkako zergak, berreskuratu edo konpentsatu ahal direnean, eta errentaren gaineko zerga pertsonalak.
- Los intereses deudores de las cuentas bancarias.
- Intereses, recargos y sanciones administrativas y penales.
- Los gastos de procedimientos judiciales.
- Los gastos que no puedan identificarse inequívocamente con la actividad objeto de la subvención y/o no se realicen en el plazo establecido.
- Los impuestos indirectos cuando sean susceptibles de recuperación o compensación ni los impuestos personales sobre la renta.

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak dirulaguntzaren xedeari lotuta ez dauden gastuak identifikatzen baditu edo eskatu den gastua jardueraren izaerarako kualitatiboki edo kuantitatiboki egokia ez dela uste badu, doitu eta proportzionala iruditzen zaion zenbatekora murriztu ahalko du gastua.

Si el Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad identificara gastos no vinculados a la ejecución del objeto de la subvención o considera que el gasto solicitado no es adecuado, cualitativa y cuantitativamente a la naturaleza de la actividad, éste podrá ser reducido a la cuantía que se considere ajustada y proporcional.

Bosgarrena.- Dirulaguntza bateragarria izango da helburu bera duten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribaturenak izan, nazionalak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak izan, dirulaguntza edo laguntza horiei buruzko arauk ezarritakoa ezertan eragotzi gabe.

Quinto.- La subvención será compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo que pudiera establecer la normativa reguladora de dichas subvenciones o ayudas.

Hala ere, 5/2005 Foru Arauaren 18.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz, emandako dirulaguntzaren zenbatekoak, berez edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezin du, inola ere, diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu.

No obstante, en cumplimiento de lo establecido por el artículo 18.3 de la Norma Foral 5/2005, el importe de la subvención concedida en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

Seigarrena.- Dirulaguntza ebazpen hau onetsi ondoren ordainduko da.

Sexto.- El abono de la subvención se realizará tras la aprobación de la presente resolución.





Dirulaguntza ordaintzeko, onuradunak egunean izan beharko ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Onuradunari ez zaio bermerik jartzeko eskatuko, 34/2010 Foru Dekretuaren 30 artikuluan ezarritako kasuak ez baitira ematen.

Zazpigarrena.- Diruz lagundutako jarduerak programaren esparruan 2024ko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra bitartean garatutako jarduketak barne hartuko ditu.

Zortzigarrena.- Dirulaguntza jasoko duen erakundeak berariaz eta idatziz onartu beharko ditu ebazpen honetan adierazitako dirulaguntzaren baldintzak, ebazpena jakinarazi eta HAMAR (10) EGUN BALIODUNEKO epean.

Bederatzigarrena.- Dirulaguntza jasotzen duen erakundeak Bizkaiko Foru Aldundiaren berariazko baimena beharko du hasierako proiektuan aldaketa nabarmenak egin nahi baditu.

Aldaketa nabarmentzat joko da %10etik gorako aldaketa egitea dirulaguntza jasoko duen erakundeak aurkeztutako aurrekontuko partida bakoitzerako onetsitakoari.

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan egiten den aldaketa orok, betiere, dirulaguntzaren helburua betetzat jotzen bada, eta nolanahi ere, beste administrazio edo erakunde batzuek, publikoek zein pribatuek, nazionalak zein nazioartekoek, ematen dituzten dirulaguntza edo laguntza aldi berean eskuratzeak dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea ekar dezakete.

Hamargarrena.- JUSTIFIKAZIOA

Para proceder al abono de la subvención la persona beneficiaria deberá hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social, tal y como se establece en el artículo 13 de la Norma Foral 5/2005.

No será exigible la prestación de garantía por parte de la persona beneficiaria, dado que no se aprecia la concurrencia de los supuestos detallados en el artículo 30 del Decreto Foral 34/2010.

Séptimo.- La actividad subvencionada comprenderá las actuaciones desarrolladas en el marco del programa durante el período comprendido entre el 1 de octubre de 2024 y el 31 de diciembre de 2025.

Octavo.- La entidad beneficiaria de la subvención deberá aceptar expresamente y por escrito las condiciones de la subvención expresadas en la presente resolución, en un plazo de DIEZ (10) DÍAS HÁBILES desde la notificación de la misma.

Noveno.- La entidad subvencionada deberá recabar el consentimiento expreso de la Diputación Foral de Bizkaia para llevar a cabo cambios significativos en la ejecución de la acción con respecto a lo previsto inicialmente.

Se entiende por cambio significativo una variación superior al 10% de lo aprobado para cada partida del presupuesto presentado por la entidad subvencionada.

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que se entienda cumplido el objeto de ésta y, en todo caso, la obtención concurrente de subvenciones o ayudas otorgadas por otras administraciones o entes públicos o privados, nacionales o internacionales, podrá dar lugar a la modificación de la presente resolución de concesión.

Décimo.- JUSTIFICACIÓN





Erakunde onuradunak **2026ko apirilaren 30ean baino lehen** frogatu beharko du diruz lagundu den ekintza gauzatu duela eta funtsak horretan erabili dituela.

Justifikazio sistema gisa **justifikazio-kontua** erabiliko da; horrekin batera, **auditorearen txostena ere aurkeztuko da**, 34/2010 Foru Dekretuko 59. artikuluan ezarria dagoena.

Kontu-auditorea Kontabilitate eta Kontu Auditoretzako Institutuaren menpeko Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean jardule gisa inskribatuta egon beharko da (erakundeak bere urteko kontuen auditoria egin behar badu, txostena auditore berberak egin beharko du).

Txosten hori Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren apirilaren 15eko 945/2011 Foru Aginduan ezarrita dagoenaren arabera prestatu behar da. Foru-agindu horren bidez, foru sektore publikoko dirulaguntzen justifikazio-kontuak berrikusteko lanak egiteko kontu-auditoreen jardun-arauak onartzen dira.

Auditoreak berrikusi beharreko justifikazio-kontuan honako hauek agertu beharko dira:

1.- Dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzak betetzen direla frogatzen duen **jarduketa-memoria**, egin diren jarduerak eta lortu diren emaitzak adierazita. Gutxienez eduki hauek izango ditu:

- DIRULAGUNTZAREN XEDEA. Diruz lagundu den jardueraren helburuaren azalpena.
- BURUTU DIREN EKINTZEN AZALPENA (epeak, tokiak, maiztasuna, zein egunetan egin diren...).
- ONURADUNAK, onuradunen kopurua eta haiekin egindako jarduketak.

La entidad beneficiaria deberá justificar, **antes del 30 de abril de 2026**, la realización de la acción subvencionada y la aplicación de los fondos a dicha acción.

El sistema de justificación será el de la **cuenta justificativa con aportación de informe de persona auditora**, previsto en el artículo 59 del Decreto Foral 34/2010.

La persona auditora de cuentas deberá estar inscrita como ejerciente en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas dependiente del Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas (en los supuestos en los que la entidad tenga obligación de realizar la auditoría de sus cuentas anuales, el informe debe realizarlo la misma persona auditora).

Dicho informe se elaborará conforme a lo dispuesto en la Orden Foral 945/2011, de 15 de abril, del Diputado Foral de Hacienda y Finanzas, que aprueba las normas de actuación de las personas auditoras de cuentas en la realización de los trabajos de revisión de las cuentas justificativas de subvenciones en el ámbito del sector público foral.

La cuenta justificativa objeto de revisión por parte de la persona auditora comprenderá:

1- Una **memoria de actuación** justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos, que deberá tener el siguiente contenido mínimo:

- OBJETO DE LA SUBVENCIÓN. Descripción del fin de la actividad subvencionada.
- DESCRIPCIÓN DE LA ACCIONES realizadas (períodos, lugares, frecuencia, fechas de ejecución...)
- PERSONAS BENEFICIARIAS, número de personas beneficiarias y





actuaciones desarrolladas en relación con las mismas.

- GIZA BALIABIDEAK eta materialak, dirulaguntzaren xedea betetzeko erabili direnak.

- RECURSOS humanos y materiales destinados al cumplimiento del objeto de la subvención.

2.- Egindako jardueren kostua justifikatzen duen **memoria ekonomikoa**; bertan datu hauek jaso beharko dira:

2- Una **memoria económica** justificativa del coste de las actividades realizadas, que deberá contener:

- Diruz lagundu den proiektu edo jarduerari egotzi zaizkion diru-sarreraren eta gastuen egoera-orria.
- Gastuen zerrenda sailkatu bat gastuen aurreko egoera-orri horretan egotzitako gastu-kontzeptu bakoitzeko.
- Sarreraren zerrenda sailkatu bat sarreraren aurreko egoera-orri horretan egotzitako gastu-kontzeptu bakoitzeko.
- Jasotako kostu orokor edota zeharkakoak: nolakoak diren, zenbatekoak eta, beharrezkoa izanez gero, banatzeko irizpideak.
- Erabili gabeko soberakinak badago, diru-kopuru hori eta sortu dituen korrituak itzultzeko ordainketa-gutuna.

- Un estado de ingresos y gastos imputados al proyecto o actividad subvencionada.
- Una relación clasificada de gastos para cada uno de los conceptos de gasto imputados en el estado de gastos anterior.
- Una relación clasificada de ingresos para cada uno de los conceptos de ingreso imputados en el estado de gastos anterior.
- Indicación, en su caso, de los criterios de reparto, naturaleza y cuantía de los costes generales y/o indirectos incorporados.
- En su caso, la carta de pago de reintegro en el supuesto de remanentes no aplicados así como de los intereses derivados de los mismos.

3.- Langileen gastuen justifikazioa.

3.- Justificación de los gastos de personal.

Memoria ekonomikoaren atal horretan, diruz lagundu den jarduketa ezartzen parte hartu duten langile guztiak zerrendatuko dira, banan-banan, eta haxe adieraziko da:

En este apartado de la memoria económica se relacionará a cada una de las personas trabajadoras que hayan intervenido en la implantación de la actuación subvencionada, indicando:

- Langilearen izen-abizenak
- Erakundean duen lanpostua (administrazioko langilea, Giza Baliabideetako arduraduna, sail bateko arduraduna...)

- El nombre y apellidos de la persona trabajadora
- El puesto de trabajo que ocupa en la entidad (personal administrativo, responsable de recursos humanos, responsable de Departamento, ...)





- Diruz lagundu den jarduera garatzean egin duen lana
- Diruz lagundu den jarduerari eskaini dizkion orduen kopurua
- Langile bakoitzaren orduko kostua
- Langile bakoitzeko zenbatekoa, guztira
- Dirulaguntzari egotzi zaion pertsona horien kostua (dirulaguntzari egotzi zaion zenbatekoa baino ez da adierazi beharko).
- La función que ha desempeñado en el desarrollo de la actividad subvencionada
- El número de horas que ha dedicado a la actividad subvencionada
- El coste hora de cada persona trabajadora
- El importe total por persona trabajadora
- El coste de estas personas que se imputa con cargo a la subvención (únicamente deberá reflejarse el importe que vaya a imputarse con cargo a la subvención).

Hamaikagarrena.- Erakundeak berariaz adierazi beharko du Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza ekonomikoa jaso duela, babestutako jardueren zabalkundea edo hedapena egiten duenean edo haiek argitaratzen dituenean. Era berean, Aldundiaren izena eta logotipoa agertu beharko dira (Aldundiaren anagrama) eta honako esaldi hau gaineratu beharko da hitzez hitz: “Programa honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du/Programa subvencionado por la Diputación Foral de Bizkaia.”

Hamabigarrena.- Bizkaiko gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren II. Tituluan ezarritakoaren arabera, erakunde onuradunak publikotasun aktiboari buruzko arauak bete beharko ditu, baldin eta lege horren 2. artikuluan aipatutako kasuren batean badago.

Hamahirugarrena.- Erakunde onuradunak zintzo bete behar ditu Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta

Undécimo.- La entidad deberá hacer constar expresamente la financiación de la Diputación Foral de Bizkaia en todas aquellas actividades apoyadas que conlleven la divulgación, difusión o, en su caso, publicación de las mismas, incluyendo su denominación y logotipo, siendo éste el formado por el anagrama de la Diputación acompañado de la siguiente frase literal: “Programa honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du/Programa subvencionado por la Diputación Foral de Bizkaia.”

Duodécimo.- La entidad beneficiaria deberá cumplir las exigencias de publicidad activa detalladas en el Título II de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, siempre y cuando se encuentre en alguno de los supuestos mencionados en el artículo 2 de la misma.

Decimotercero.- La entidad beneficiaria debe cumplir los principios y obligaciones establecidos en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres, así





Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan ezarritako printzipioak eta betebeharrak.

Agiri guztietan, publizitatean, irudietan eta materialetan hizkuntzaren erabilera sexista eta emakumeen irudi bereizkeriazkoa edo estereotipo sexistak saihestu behar ditu, eta irudi egokia sustatu, balio zuzenak islatzen dituen: berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, ardura partekatua eta rolen nahiz genero-identitateen aniztasuna.

Hamalaugarrena.- Erakundeek laguntza jasotzen duten elkarte edo erakunde, pertsona fisiko edo juridikoen euskara erabili beharko dute diruz lagundutako jardueraren ondoriozko esku-hartze publiko guztietan.

Pertsona edo erakunde onuradunek beren jardueraren berri herritarrei emateko erabiltzen dituzten liburuxka, kartel edo beste edozein euskarritan bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira.

Hamabosgarrena.- Laguntza jasotzen duen erakundeak ebazpen honetan edo aplikatu beharreko araudian ezarritako edozein baldintza betetzen ez badu, edo 5/2005 Foru Aginduen 33. artikuluan ezarritako kausaren bat gertatzen bada, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru-diputatuaren foru-agindu bidez, eta erakunde onuradunari alde aurretik jakinarazita, bertan behera utziko da emandako dirulaguntza eta, beraz, jasotako zenbatekoak gehi aplikatu beharreko legezko interesak itzuli beharko ditu, bidezkoak izan daitezkeen bestelako akzioak ezertan ukatu gabe.

Hamaseigarrena.- 34/2010 Foru Dekretuak 76. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, erakunde onuradunak dirulaguntza Bizkaiko Foru Aldundiari itzultzea erabaki dezake hark ez eskatu arren.

Hori egiten badu, Bizkaiko Foru Aldundiak berandutza-korrituak kalkulatu ditu, dirulaguntza itzuli arte sortutakoak, aipatutako

como en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, de Igualdad de Mujeres y Hombres.

Toda la documentación, publicidad, imagen o materiales deberán emplear un uso no sexista del lenguaje, evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad y pluralidad de roles e identidades de género.

Decimocuarto.- Las asociaciones o entidades, personas físicas o jurídicas receptoras de una ayuda de las entidades deberán utilizar el euskera en todas las intervenciones públicas resultantes de la actividad subvencionada.

En todos los folletos, carteles o cualquier otro soporte utilizado por las personas o entidades beneficiarias para dar publicidad de su actividad a la ciudadanía deberán utilizarse las dos lenguas oficiales.

Decimoquinto.- En el supuesto de que la entidad beneficiaria de la ayuda incumpliera cualquiera de las condiciones establecidas en la presente resolución o en la normativa de aplicación, o se produjera alguna de las causas contempladas en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005 mediante Orden Foral de la Diputada Foral de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, y previa audiencia a la entidad beneficiaria se dejará sin efecto la subvención concedida, por lo que vendrán obligadas a reintegrar los importes percibidos más los intereses legales que resulten de aplicación, sin perjuicio de las demás acciones que procedan.

Decimosexto.- De conformidad con lo previsto por el artículo 76 del Decreto Foral 34/2010, la entidad beneficiaria podrá proceder a la devolución voluntaria de la subvención concedida por la Diputación Foral de Bizkaia sin el previo requerimiento de esta última.

En este supuesto, la Diputación Foral de Bizkaia calculará los intereses de demora hasta el momento de la devolución efectiva de la





76. artikuluan xedatutakoarekin bat etorri eta 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Onuradunak berak eskatuta Foru Aldundiaren dirulaguntza itzuli ahal izateko, ordainketa-gutuna erabili beharko da.

Onuradunak eskatu beharko du ordainketa-gutuna, eta dirulaguntza kudeatzen duen foru zerbitzuko bulegoetan izapidetuko diote. Ordainketa-gutun horretan, itzuli beharreko zenbatekoa jarriko da (printzipala eta korrituak), baita modeloaren kodea eta sarreraren arrazoia ere. Gainera, itzuli beharreko dirulaguntzaren aipamena egingo da.

Hamazazpigarrena.- Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak lortu nahi diren helburuak betetzen direla bermatzeko beharrezkoak diren ikuskaritza, kontrol, errekerimendu eta ebaluazio jarduerak egin ahalko ditu. Horretarako, erakunde onuradunak erabateko laguntza eskainiko die zuzendaritzak aukeratutako pertsona edo erakundeei.

Erakunde onuradunaren eta dirulaguntzaren xedeari edo haren justifikazioari lotutako hirugarren pertsonen betebeharra izango da Foru Administrazioako organoei eta, Europar Batasuneko araudiarekin bat, finantza-kontrolako eginkizunak esleituta dituzten organoei eskatzen duten laguntza ematea eta behar beste dokumentu aurkeztea. Egin behar hori betetzeari uko egitea erresistentzia, aitzakia, traba edo ezetza izango da, 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan aurreikusten diren ondoretarako, bidezkoak izan litezkeen zehapenak alde batera utzi gabe.

Hamazortzigarrena.- 5/2005 Foru Aginduen 27. artikulua eta 34/2010 Foru Dekretuaren 53. artikulua ezartzen duenarekin bat etorri, erakunde onuradunak hirugarrenekin azpikontratatu ahalko du diruz lagundu den jarduera, horren zenbatekoaren ehuneko 85 gainditzen ez bada. Azpikontratazio hori lotuak

subvención, conforme a lo dispuesto en el referido artículo 76 y según lo establecido en el artículo 34 de la Norma Foral 5/2005.

La devolución de la subvención foral a instancia de la propia persona beneficiaria de la misma se deberá realizar mediante la correspondiente carta de pago que, a su requerimiento, le será tramitada en las dependencias del servicio foral gestor de la subvención. En dicha carta de pago se consignará el importe a devolver (principal e intereses), código del modelo y motivo del ingreso haciéndose además referencia a la subvención a devolver.

Decimoséptimo.- La Dirección General de Inclusión Social podrá realizar las acciones de inspección, control, requerimiento y evaluación necesarias para garantizar el cumplimiento de las finalidades perseguidas, para lo cual la entidad beneficiaria prestará la máxima colaboración con las personas o entidades que la dirección decida.

La entidad beneficiaria y las terceras personas relacionadas con el objeto de la subvención o su justificación estarán obligadas a prestar colaboración y facilitar cuanta documentación sea requerida por los órganos de la Administración Foral, así como a los órganos que, de acuerdo con la normativa comunitaria, tengan atribuidas funciones de control financiero. La negativa al cumplimiento de esta obligación se considerará resistencia, excusa, obstrucción o negativa a los efectos previstos en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005, sin perjuicio de las sanciones que, en su caso, pudieran corresponder.

Decimotercero.- Con base en lo previsto en el artículo 27 de la Norma Foral 5/2005 y en el artículo 53 del Decreto Foral 34/2010, la entidad beneficiaria podrá subcontratar con terceras personas hasta un 85 por 100 del importe de la actividad subvencionada. Dicha subcontratación podrá realizarse con personas





dauden pertsona edo erakundeekin egin ahalko da; betiere, aipatu den 5/2005 Foru Arauko 27. artikulua arautzen duenarekin bat etorriz.

Hemeretzigarrena.- Foru Administrazioaren dirulaguntzen araubide juridiko orokorrari buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan arau-hauste administratibotzat jotzen diren ekintzen eta ez-egiteen erantzuleak bertan araututakoaren arabera zehatuko dira.

Hogegarrena.- Ebazpen honetan aurreikusi ez den guztirako, Foru Araua, 34/2010 Foru Dekretua eta aplikatu daitezkeen gainerako xedapenak aplikatuko dira.

Hogeita batgarrena.- Datu pertsonalen tratamendua honako hauetan xedatutakoaren arabera egingo da: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa, eta 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena.

Horrela, justifikazio-kontuarekin batera aurkeztutako datu pertsonalak dirulaguntza ematea justifikatzen duten baldintzak betetzen direla egiaztatzeko erabiliko dira eta datu horien tratamendurako fitxategi informatizatu pertsonalizatu batean sartuko dira.

Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia da fitxategi horren arduraduna (helbidea: Urkixo zumarkalea, 4. zk., 3. solairuan, 48008-Bilbo (BIZKAIA)).

Ez da aurreikusten datu pertsonalen lagapenik,

o entidades vinculadas, siempre de conformidad con lo regulado en el citado artículo 27 de la Norma Foral 5/2005.

Decimonoveno.- Las personas responsables de las acciones y omisiones tipificadas como infracciones administrativas en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la administración foral, serán sancionados de acuerdo con la regulación establecida en la misma.

Vigésimo.- Para todo lo no previsto en la presente resolución será de aplicación la Norma Foral 5/2005 y el Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, así como cualquier otra disposición que pudiera resultar de aplicación.

Vigésimoprimer.- El tratamiento de los datos personales se hará con sujeción a lo dispuesto en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales y, en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE (Reglamento general de protección de datos).

De esta manera, los datos personales aportados junto con la cuenta justificativa se destinarán a comprobar el cumplimiento de los requisitos que justifican la concesión de la subvención y se integrarán en un fichero informatizado de carácter personal para el tratamiento de dichos datos.

El responsable de este fichero es la Dirección General de Inclusión Social del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia, con domicilio en C/ Alda. Urquijo nº 4- 3ª planta, 48008, Bilbao (BIZKAIA).

No se prevén cesiones de datos personales,





salbu eta legezko betebeharra badago edo estatistika- zein ikerketa-helburuetarako bada, baina, horretarako, beharrezkoa da gaia dagokion pertsonaren aurretiazko baimena izatea.

Gaia dagokien pertsonak beren datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatze, haien tratamendua mugatzeko eta haien aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituzte, eta aukera hori baliatzeko, idazki bat helarazi beharko diote tratamenduaren arduradunari:

- idazkia Urkixo zumarkalea, 4. zk.,3. solairuan, 48008, Bilbo helbidera bidalita
- edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako eretako bat, edozein, erabilita.

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiari dagokio eskabide horiek ebaztea.

Halaber izango duzue eskubidea erreklamazioa aurkezteko Datuen Babesaren Kontrol Agintaritzaren aurrean (Datuk Babesteko Euskal Bulegoa).

Aldi berean, aukera izango duzue datuak babesteko ordezkariarekin harremanetan jartzeko, Lege Aholkularitza, Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Atalean: Kale Nagusia, 2, 6.- 48001 Bilbo.

Hogeitabigarrena.- Ahalmena ematen zaio Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru-diputatuari, ebazpen honetan xedatutakoa betearazteko eta betetzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

Hogeitahirugarrena.- Ebazpen hau erakunde onuradunari jakinaraziko zaio. Era berean, ondokoei ere komunikatuko zaie: Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko

salvo obligación legal, o para fines estadísticos o de investigación con el consentimiento inequívoco de la persona afectada.

Las personas afectadas podrán ejercer sus derechos de acceso, rectificación, supresión, limitación al tratamiento y oposición de sus datos de carácter personal, y para ejercerlos deberá enviar escrito a la persona responsable del tratamiento:

- a la dirección Alda. Urquijo nº 4- 3ª planta, 48008, Bilbao
- o, a través de cualquiera de las formas establecidas en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

La resolución de dichas solicitudes corresponde a la Dirección General de Inclusión Social, del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad.

También disponen del derecho a presentar reclamación ante la Autoridad de Control de Protección de Datos (Agencia Vasca para la Protección de Datos).

Asimismo, podrán contactar con la persona delegada de Protección de Datos en la Sección de Asesoramiento Jurídico, Seguridad de la Información y Protección de Datos – Gran Vía, 2, 6º – 48001, Bilbao.

Vigesimosegundo.- Se faculta a la Diputada Foral del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad para dictar cuantas disposiciones resulten necesarias para la ejecución y cumplimiento de lo dispuesto en la presente resolución.

Vigesimotercero.- Notificar la presente resolución a la entidad beneficiaria y comunicarla al Servicio de Servicios Generales del Departamento de Empleo, Cohesión Social





Saileko Zerbitzu Orokorretako Zerbitzuari eta Ogasun eta Finantza Saileko Fiskalizazio Zerbitzuari. Era berean, Ogasun eta Finantza Saileko Fiskalizazio Zerbitzuari dagozkion txosten ekonomikoak helaraziko zaizkio.

e Igualdad. Asimismo, se dará traslado de la misma y de los informes económicos correspondientes al Servicio de Fiscalización del Departamento de Hacienda y Finanzas.

Hala ere, zuk zeuk ebatziko duzu egokiena.

No obstante, Ud. resolverá lo más conveniente.

Inklusioa Sustatzeko Zerbitzuko burua/ Jefa del servicio para la inclusión. MARTA BARCO MONDRAGON

Gizarte Inklusioa Sustatzeko zuzendari nagusia/ Director general de Inclusión Social. OSCAR SECO REVILLA.

PROBIDENTZIA/ PROVIDENCIA: Ontzat ematen dut aurreko proposamena, horrekin ados nago. Ondorioz, aurkez bekio Ahaldu Nagusiari foru-dekretua eman dezan/ Presto mi visto bueno y conformidad a la propuesta antecedente y, en consecuencia, elévese a Decreto Foral de la Excm. Sra. Diputada General.

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta berdintasuna Sustatzeko Saileko foru-diputatu/ La diputada foral del Departamento de empleo cohesión social e igualdad. M^a TERESA LAESPADA MARTÍNEZ.

Aurreko txostenak onartzen dira eta, ondorioz, horietan proposatzen denaren arabera ebazten da/ Se aceptan los anteriores informes y, en consecuencia, se resuelve de conformidad a lo que en ellos se propone

Ahaldu Nagusia/ La Diputada General. . ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA

